



EBAZPENA, 2008ko urtarrilaren 14koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Toponimiako Batzorde-atal Bereziaren kideak izendatzeko.

Euskararen Aholku Batzordearen urriaren 16ko 176/2007 Dekretuak euskararen alorrean administrazioaren aholkulari den organo horren araubide juridikoa finkatzen du eta, besteak beste, horren osaera zehazten du.

Horrela, 176/2007 Dekretuaren hamabosgarren artikulua Toponimiako Batzorde-atal Bereziaren osaera eta iraupena arautzen ditu. Horren arabera, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuko ditu dekretuaren 15.1 artikuluko c) idazatian aipatzen diren kideak, eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko kideekin batera utziko dute kargua, haien kargualdia bukatzean.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Toponimiako Batzorde-atal Bereziko kideen izendapena egitea.

Hauek dira 176/2007 Dekretuaren 15.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera izendaturiko kideak:

- Joseba Andoni Apraiz Ormaza jauna, Eusko Jaurlaritzan kartografiaren gaiaren gaineko eskumena duen saileko ordezkaria.
- Jose M^a Endemaño Arostegui jauna, Eusko Jaurlaritzan toki-administrazioaren araubidearen gaiaren gaineko eskumena duen saileko ordezkaria.
- Agustin Otsoa Eribeko Landa jauna, Arabako Foru Aldundiko ordezkaria.
- Alazne Aurre Urzaa andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria.
- M^a Luisa Etxeberria Rekondo andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria.
- Jose Elortegi Villalabeitia jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen elkarteko ordezkaria.



- Oihana Mitxelena Hoyos andrea, Instituto Geográfico Nazionaleko erakundearen ordezkaria.
- Mikel Gorrotxategi Nieto jauna, Euskaltzaindiko ordezkaria.

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskararen eta toponimiaren arloan ospe aitortua duten pertsonen artean izendatutako kideak:

- Joseba Erkizia Itoitz jauna.
- Patxi Galé Garcia jauna.
- Nerea Mujika Ulacia andrea.
- Patxi Salaberri Zaratiegi jauna.
- Bernadette Soulé andrea.
- Endika Urtaran Motos jauna.

Bigarren artikulua.- Ebazpen honek izenpetzen den unetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 14a

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
Patxi Baztarrika Galparsoro